

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. ELAren jarrera Gipuzkoako hondakinen kudeaketak duen egoeraren aurrean***
- 2. Eusko Jaurlaritzak gure seme alaben elikadura negozio bihurtu du***
- 3. Zer da hainbeste aldarrikatzen dugun Ekonomia Zirkularra?***
- 4. Bidezkoa al da elektrizitate-enpresei ordaintzen diegun zorra?***

## **1. ELAren jarrera Gipuzkoako hondakinen kudeaketak duen egoeraren aurrean**

Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren gaia eztabaidagai izan da azken urteetan, eta ez dirudi oraindik bukaerara iritsi garenik. Eredu batetik bestera pasatzen da Foru Aldundiko gobernua aldatzen den bakoitzean, eta baita herri eta mankomunitateetako agintariak aldatzen diren bakoitzean ere. Batzuetan galdeketa bidez hartu dira erabakiak, beste batzuetan herritarrei kontsultatu gabe.

Aldaketa eta erabaki guzti hauen ondorioz gaur egun daukagun egoera ondorengoa da:

- Foru Aldundiko gobernu berriak erraustegia eraikitzea erabaki du, 2019n martxan jartzea da helburua. 200.000 tona hondakin erretzeko ahalmena izango du, 2008an 260.000 hondakin erretzeko eraiki nahi zena baino txikiagoa. Baina erraustegia eraiki behar zuen ingeniarietza enpresak, 80.000 tona hondakin erretzeko erraustegia nahikoa zela adierazi zuen argitara atera ez zen txosten batean, errefusa kantitatea asko gutxituko zela aurreikusten baitzuten.
- Foru Aldundiak hurrengo asteetan Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Plangintza aurkeztu behar du, hurrengo

urteetarako helburu eta azpiegiturekin. Aurreko legealdian onartu zena, erraustegia plangintzatik atera zuena, bertan behera utziz.

- Aurreko Foru gobernuak aurkezturiko hondakinen kudeaketarako plangintzan aurreikusitako azpiegitura guztiak ez dira eraiki. Zubietako hondakinen kudeaketarako zentro berriak behar zuen Ingurumen Baimen Bateratua ukatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak, zalantzez beteriko erabakia izan zen. Epeleko konpostaje zentroa (Bergara) bakarrik eraiki da eta Sasieta (Beasain) eta Urtetako (Zarautz) zabortegeiak itxi dira. Ondorioz, irekita dagoen zabortegei bakarra, Lapatx (Azpeitia), kolapsatzeko zorian dago. Hondakin organikoak Iparraldera bidaltzen dira, errefusa Nafarroara, eta orain Kantabriara errefusa gehiago bidaltzeko bidea ireki da.

- Herrietan hondakin bilketarako sistemak aldatzen ari dira udal gobernu batzuk, tokian tokiko kasu ezberdinak ematen ari dira. Kasu batzuetan atez atekoa bertan behera utzi eta berriro edukiontzia jarri dira, birziklatzeak derrigorrezkoa izateari utziz. Beste batzuetan derrigortasunari eutsi diote sistema aldatu arren, atez atekoa kendu baina txipdun edukiontzia jarri. Birziklapen tasek

aldaketak izan dituzte.

Gipuzkoako hondakinen kudeaketan emango den atzerapausoa ikusirik eta herri bakoitzeko errealitatea hain anitza izakin, ELAk hondakinen kudeaketari dagokionez duen posizioa azpimarratu nahi du berriro ere, tokian tokiko kasuistikan sartu gabe baina kasu guztietan aplikatzen ditugun printzipioak azalduz:

- ELAk ez du erraustegia hondakinen kudeaketarako azpiegitura gisa onartzen, inongo kasuan, ez hiri hondakinentzat ez eta zementu fabriketan erretzen diren hondakinentzat. Ingurumenarentzat eta osasunarentzat kaltegarriak diren azpiegiturak direlako, eta gainera beste azpiegitura iraunkorragoak baino garestiagoak.
- Hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida hau piztu zenean 3 bilketa sistema soilik genituen. Lau eta bost edukiontziko sistemak, birziklatzea derrigorrezkoa ez dena. Eta atez ateko bilketa, birziklatzea derrigorrezkoa egiten duena. ELAk atez ateko sistema hobetsi zuen %80tik gorako birziklapen tasak lortzen zituen bakarra zelako. Gaur egun Gipuzkoako herrietan dauden hondakin bilketa sistemen aniztasuna ikusirik, ez dugu sistema bat

hobesten. Gaur egun badira herri batzuetan atez atekoa izan gabe %80tik gorako birziklapen tasak dituztenak, beraz aukera ezberdinak iruditzen zaizkigu onargarriak, beti ere birziklapena derrigorrezkoa izanik eta lortzen den birziklapen tasa %80tik gorakoa bada. Garrantzitsuena ez da bilketa sistema, Zero Zabor helburura iristea baino.

- Gipuzkoako hondakinen kudeaketa iraunkorra aurrera eramateko beharrezkoak diren azpiegiturak eraiki behar dira: organikoarentzat konpostaje zentroak, beste hondakin motak kudeatzeko zentroak, bereizi gabe jasotzen diren hondakinentzat tratamendu mekaniko-biologikorako zentroa (TMB), eta birziklatu ezin diren hondakinak inertizatze eta biltegitratzeko azpiegitura.
- Lanpostu iraunkorrak eta tokian tokikoak sortuko dituen sistema lehenesten dugu, gutxi batzuen interes ekonomikoaren gainetik.
- Klima aldaketari aurre egiteko hondakinen kudeaketa eraginkor eta iraunkorra behar dugu.
- Ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala egiteko ezinbestekoa da Ekonomia Zirkularraren printzipioak aplikatzea, hasi ekoizpenetik eta azken hondakina birziklatu arte. Oraindik birziklatu ezin diren frakzioak

nola berrerabili eta birziklatzeko ikerketa eta berrikuntza bultzatu behar da instituzioetatik, ekonomia zirkularra errealitatea izan dadin.

ELAk hondakinen kudeaketari dagokionez beti izan duen jarrera aurreko printzipio hauetan oinarritu da eta hemendik aurrera ere berdin jarraituko dugu.

## **2. Eusko Jaurlaritzak gure seme alaben elikadura negozio bihurtu du**

Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe publikoetako jantokietan zerbitzua eskaintzen duten 8 catering enpresei 18 milioi eurotako isuna jarri die Lehiaren Agintaritzak prezioak manipulatu eta azken urteetako esleipenetan lehia desitxuratu dutelako. Enpresen artean banatu dute merkatua. Isuna enpresa hauen negozio osoaren %3 eta %7 bitartekoa da. 10 urtetan enpresek %35etik gorako gainkostua poltsikoratu dute. Eta sistema fraude bat dela jain arren, berdin jarraitzen da, ez da hartu inolako neurririk.

EAEko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen 2000ko martxoaren 22ko agindua ezarri zuenean, Eusko Jaurlaritzak negozioa lehenesten zuen sistema ezarri zuen. Sistema honek catering

enpresen bitartekaritza derrigortzen du, eta hala ez bada, jangela hori babes instituzional eta ekonomikorik gabe geratzen da. Esaterako, catering enpresa bitartez zerbitzua eskaintzen ez duten jangelek ez dute inongo dirulaguntzarik jasotzen, eta ondorioz, familiek ordaindu beharreko zerbitzuaren prezioa garestiagoa da. Sistema honek jantoki zerbitzua, gure seme alaben elikadura eta familien poltsikoa kaltetzen du.

Catering enpresen bitartekaritza derrigortzen duen agindu hau aldatzeko aldarrikapena aspalditik dator, baina orain inoiz baino arrazoi handiagoarekin. Agindu hau indarrean jarri zenean ikastetxeen autonomia murriztu zen eta enpresa gutxi batzuen esku utzi zen zerbitzua, izugarriko negozio bihurtuz. Orain frogatua geratu da enpresa hauen kudeaketa iruzurtia izan dela eta Eusko Jaurlaritzak 10 urtez gutxienez beste aldera begiratu duela, interes ekonomiko horiei mesede eginez. Ordua da beraz, agindu hori aldatu eta ikastetxe publikoetako jantokien kudeaketa sistema aldatzeko.

Arrazoi guzti hauengatik ELAk jantoki sistema arautzen duen agindua aldatzea eskatzen du eta sistema berri hau nolakoa izango den erabakitzeko benetako eztabaida

bat egitea, jantokiek jarraitu beharreko irizpideak markatzeko. Sindikatuak ikastetxeak zuzenean jangela kudeatzeko eredua lehenesten du enpresa handien gainetik, elikadura osasuntsua ahalbideratuz sasoian sasoiko tokiko produktuekin eta produktu ekologikoekin, eta bide batez tokiko ekonomia sustatuz.

Bestalde, ezin da ahaztu jantokietako langileen egoera. Dagoeneko lan baldintza kaxkarrak dituzte eta eredu berriak lan baldintza duinak ahalbideratu behar ditu. Langile hauek behin eta berriro aldarrikatu duten arrazoi osoz hezkuntza esparru batean lan egiteko formakuntza behar dutela, eta horregatik beharrezkoa da sistema berriak langileei formakuntza egokia ematea.

### **3. Zer da hainbeste aldarrikatzen dugun Ekonomia Zirkularra?**

Sarri aldarrikatu dugu ELAn ekonomia zirkularren beharra. Baina zertaz ari gara ekonomia zirkularra aipatzen dugunean? Lehenik eta behin orain dugun eredua azaldu behar da. Gaur egun ekonomia lineal batekin funtzionatzen dugu. Lehengaiak naturatik atera, garraiatu, eraldatu, merkaturatu eta kontsumitu egiten dira, eta behin erabili ondoren, hondakin kontsideratzen

ditugunez, bota egiten ditugu beraien bizitza zikloa bukatuz. Eredu hau ez da iraunkorra eta ondorioz arazoak sortzen ditu. Batetik natur baliabideak agortzen ditu eta bestetik hondakin kopuru handiak sortzen dira.

Ekonomia lineal honen alternatiba ekonomia zirkularra da. Eredu linealak sortzen dituen arazoak saihesteko eredu zirkularra berreskuratu behar dugu. Berreskuratu diogu aurreko mendeetan gure arbasoek horrela funtzionatzen baitzuten, beharrezkoa bakarrik zena erabiliz, ahalik eta gehin aprobetxatuz eta naturara ahalik eta gehien itzuliz.

Gakoak bat baino gehiago dira aldaketa hau eman ahal izateko. Batetik erabili behar diren lehengaiak birziklatuak izan behar dira, naturatik ahalik eta baliabide gutxien hartzeko. Bestalde, materialak behin eta berriro erabili behar dira lehengaien erabilera murrizteko. Eta azkenik, hondakinak birziklatuz lehengai bihurtu behar dira berriro ere ekoizpenean sartzeko.

Ez gara bakarrak eredu honen beharra aldarrikatzen dugunak. Europar Batasunak 2015eko abenduan Ekonomia Zirkularrerako neurri sorta onartu zuen hurrengo urteetarako. Neurri hauek hainbat sektoretan hartu beharrekoak dira: ekoizpena,

kontsumoa, hondakinak, lehengaiak, ikerketa,... Hona hemen neurri esanguratsuetako batzuk:

- Diseinu ekologikoaren zuzentarauan produktuen ezaugarrietan ekonomia zirkularraren irizpideak azpimarratzea.

- Europako erakunde legegileei eskaera etorkizunean diseinu ekologikoaren inguruan materialen eraginkortasunari buruz egin beharreko legetan produktuen denboran duten iraunkortasuna, konpongarritasuna eta birziklagarritasuna kontuan hartzea.

- Hainbat sektore industrialetarako eskura ditugun teknika onenen inguruko erreferentzia dokumentuetan (BREF) ekonomia zirkularrari buruzko orientabideak sartzea.

- Diseinu ekologikoaren markoan konponketari buruzko informazioa eskuragarri izateko betebeharrak proposatzeko aukera aztertzea.

- Zaharkitzapen programatuari buruzko entsegu independenteen programa bat egiteko aukera aztertzea.

- Hondakinei buruzko lege proposamen berrikusia

- Hondakinen bilketa sistemetako praktika onen identifikazioa eta zabalpena.

- Bigarren mailako lehengaientzat kalitate

arauak eratzea.

- Plastikoentzat estrategia ekonomia zirkularrean.

- Elikagaien kontsumo daten aukerak aztertu hobeto ulertu eta erabilera eraginkorragoa izateko.

- Hondakin elektronikoen, baterien eta bixitza erabilgarriaren bukaeran konplexuak diren beste produktu batzuen birziklapen eraginkorrerako europar arauak.

- Eraikuntza eta eraisketa hondakinen borondatezko birziklapenerako protokoloa sektore guztiarentzako.

- Biomazaren erabilerarako praktika hobereenen orientazio eta difusioa eta arlo honetarako berrikuntzari babesak.

- Estatu kideei eta erregioei kohesio politiketako fondoak ekonomia zirkularrerako erabiltzen laguntzeko komunikaziojarduera espezifikoak.

- Ekonomia zirkularrean espezializazio bidezko berrikuntza indartzeko estatu kide eta erregioei laguntza.

#### **4. Bidezkoa al da elektrizitate-enpresei ordaintzen diegun zorra?**

ELAn zenbait urte daramagu zor bidegabea aztertzen. Zor bidegabeak alderdi askotarikoak izaten dira. Testu honetan

horietako bat jorratuko dugu: estatuak elektrizitate-enpresekiko duen ustezko zorra. Izan ere, Estatu espainola 1998 urtean — herritarrentzat zerbitzu hori liberalizatu zenean— hasi zen sektore elektrikoari ordainketak egiten, eta gaur arte.

Pablo Cotarelok “Energiaren benetako kostua” txostena aurkeztu du, eta horren bidez zor hori aztertu du (ikus txostena [hemen](#)). Txostenaren egileak dioenez “txosten honetan aztertzen da ea konpainia horiei egindako ordainketak bat datozen herritarren interesekin edo, aitzitik, herritarren funtsezko eskubideei kalte egiten dieten edo arriskuan jartzen dituzten”. Legezketasuna eta bidezketasuna bereizi behar ditugu, ez baitira gauza bera. Txostenean zehar aztertzen da nola gutxiengo baten aldeko ordainketa, zor eta diru-laguntza horiek, hainbat eskubideren kaltetan diren, alegia, giza eskubideen, garapenerako eskubideen, identitatearen eskubideen edo ingurumen osasungarri batean bizi izateko eskubideen kaltetan.

Bidezketasunaren analisiaren emaitzek erakusten dutenez 1998 eta 2013 urteen bitartean modu bidegabean ordaindu zitezkeen diru-kopuruak, herritarren interesekin bat ez etortzeagatik, 66.097 eta

76.680 milioi euro bitartekoak izan direla jo daiteke.

Estatuak berak onartu du kostu eta zor horiek gizartearen kontura joan direla elektrizitate-tarifaren bidez. Tarifa horren zati arautuan kostu batzuk energia nuklearrari, tarifa-defizitari eta ikatzari dagozkio eta beste batzuk lehiara trantsizioko kostuak dira. Eta horiek guztiak bidegabetzat jo litezke, herritarren interesen kontrakoak direlakoan. Gure argi-fakturaren merkatu-osagaiari dagokionez, esan dezakegu faktura baldintzaturik dagoela prezioak finkatzen dituen merkatuaren funtzionamendu irregularragatik. Atal horretan ohiz kanpoko gauzak sartzen dira, besteak beste, zentral nuklear eta hidroelektriko zaharren jabeentzako zuritu gabeko aparteko etekinen sorkuntza, edukieragatiko ordainketak, elektrizitatearen gaineko zergaren aplikazioa (gehi BEZ), etendura-kontratuekin loturiko ordainketak, eta kontagailuak alokatzetik datorren diru-bilketa. Horietako bat ere ezin da jo herritarrentzako zerbitzutzat. Estatuak, gainera, beste ordainketa batzuk egin dizkie elektrizitate-enpresei, CESUR enkantearen bidez (elektrizitatearen prezioa zehazten duena) eta tarifa-defiziten bidez. Tarifa-defizitaren interesak ordaindu beharrak

etorkizuneko baliabide publikoak baldintzatzen ditu; hori dela-eta, zor bidegabetzat har liteke, modu ilun eta irregularrean sortu baita. Eta Estatuak berak onartu duenez, herritarrek ordainketa bidegabeak egin dituzte argiaren fakturaren bidez 2009 eta 2013 bitartean.

Espainiako elektrizitate-sistema ez da jasagarria. Etengabe dago krisian, eta sistemari eutsi ahal izateko, diru-laguntza publikoak behar dira. Sektoreak 65.000 milioi euro jaso ditu diru-laguntzetan. Ingurumenaren ikuspegitik ere ez da

jasagarria, ez dugu ahanzi behar zor ekologikoa. Elektrizitate-sektorea ez da jasagarria, planetaren mugak gainditzen ditu. Eragiten dituen kalteak konponezinak dira, eta ondorio txarrak dakarzkie jendearen osasunari, biziraupenari eta ekosistemaren mantentzeari.

Arrazoi horiengatik eta txostenean azaltzen diren beste batzuegatik autoreak herri-auditoretza abiaraztea proposatzen du, 1998. urteaz geroztik sektore elektrikoari egindako ordainketa asko bidegabeak bezain jarraituak izan direlakoan.